AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

684

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 31koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, Euskal Finantza Erakundean zenbait lanpostu aldi baterako betetzeko hautaketa-prozesu berezien deialdia, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

2014ko urtarrilaren 30ean Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak emandako Ebazpen bidez, zenbait lanpostu aldi baterako betetzeko hautaketa-prozesuen deialdia argitaratzeko agintzen da.

Euskal Finantza Erakundeak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izenpetu duten kudeatzeko gomendioari buruzko akordioaren arabera, IVAPek laguntza emango du hautaketa-prozesuetan ematen diren akordio, ebazpen eta komunikazioak argitaratzeko.

Aurreko guztia dela eta

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2014ko urtarrilaren 30eko Euskal Finantza Erakundeko zuzendariaren Ebazpena, honekin batera eranskin modura doana, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 31.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

ERANSKINA

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, Euskal Finantza Erakundeko zuzendariarena. Honen bidez, zenbait lanpostu aldi baterako betetzeko hautaketa-prozesu berezien deialdia argitaratzeko agintzen da.

Euskal Finantza Erakundeak ondoko lanpostuak bete behar ditu aldi baterako:

- Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduraduna.
- Finantza Operazioetako Arlo-arduraduna.
- Inbertsioetako Teknikari analista.
- Kontabilitate- eta Finantza-Teknikaria.

Abenduaren 23ko 218/2008 Dekretuak, Euskal Finantza Erakundearen Estatutuak onartzekoak ezartzen duenez, langileak kontratatzeko, erakundearen Administrazio Kontseiluak ezarri eta deitutako onarpen probak egingo dira. Horietan, hain zuzen, publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak beteko dira.

Administrazio Kontseiluak hautaketa-prozesuetarako deialdia eta prozesu hauek arautuko dituzten oinarriak onarturik, ondokoa.

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra. Euskal Finantza Erakundean, Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduradun, Finantza Operazioetako Arlo-Arduradun, Inbertsioetako Teknikari Analista eta Kontabilitate- eta Finantza-teknikari lanpostuak aldi baterako betetzeko hautaketa-prozesuetarako deia argitaratzeko agintzea. Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta horren berri emateko, iragarkiak jarriko dira komunikabideetan. Deialdia, Ebazpen honen I, II, III eta IV eranskinetan azaltzen diren oinarriek arautuko dute.

Euskal Finantza Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ogasun eta Finantza sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da Ebazpena argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondokoetan. Errekurtsoari ez bazaio ebazpen adierazirik ematen, errekurtsoa ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde,
EUSKAL FINANTZA ERAKUNDEKO ZUZENDARIA.

I. ERANSKINA

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ARLO-ARDURADUNA ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.– DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua da pertsonak hautatzea Euskal Finantza Erakundean Aholkularitza Juridikoko Arlo-arduraduna aldi baterako kontratatzeko, ondoren adierazten diren baldintzetan:

Kokapen geografikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan.

Euskal Finantza Erakundearekiko lotura: iraupen jakineko lan-kontratua**.**

Bete beharreko eginkizunak: hautatutako pertsonak ondoko eginkizunak beteko ditu Euskal Finantza Erakundean:

- Erakundearen organoei aholkularitza ematea zuzenbidearen alorrean.
- Administrazio Kontseiluaren idazkaritza egikaritzea.
- Merkataritza kontratuak, akziodunen itunak, lankidetza hitzarmenak, mandatuak eta beste agiri juridiko batzuk taxutzea.
- Proiektuak finantzatzeko kontratuak taxutzea (Project finance) eta kontratu horien «due diligence» direlakoak egitea.
- Erakundearen operazioen ondorioz gertatutako ez-ordaintzeak eta berreskurapenak kudeatzea.
- Zorrak berriro kobratu ahal izateko erakundeak burutu ditzakeen eginbide judizialak ikuskatzea
- Aholkularitza ematea gai fiskaletan.
- Erakundearen eskumenekoa den edozein gairi buruzko txosten juridikoak taxutzea eta ikuskatzea.
- Laguntza ematea gai juridikoetan Erakundeko gainontzeko arloei.
- Eskatutako titulazioarekin eta kategoriarekin bat etorrita, esleitu ahal zaion beste edozein eginkizun.

BIGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

1.– Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte izatea.

b) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziokotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratua gauzatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute.

c) Titulazioa: Zuzenbideko lizentziatura, zuzenbideko gradua, zuzenbideko gradua / bachelor of laws tituluen jabe izatea edo berauek eskuratzeko eskubideak ordaindurik izatea.

d) Egin beharreko zerbitzuak burutzea eragotziko duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea.

e) Diziplina-espediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auzian sartuta ez egotea.

g) Lan eskarmentua: lau urteko eskarmentua gutxienez, ondoko eginkizunetako batean: Merkataritzako zuzenbidea eta zuzenbide fiskala. Finantza-operazioetako «due diligence» direlakoak egiten. Baldintza hau ondoko bideetako bat baliatuta egiazta daiteke:

- Zerbitzuak eman diren enpresak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak burutu diren eginkizunak zehaztu behar ditu.

- Lan-kontratua, burutu diren eginkizunak ezagutzeko bidea ematen badu, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.

- Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun-sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituena. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu; sententziak, eskatzailea egile duten txostenak, e.a.

2.– Aurreko baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira eta bere horretan mantendu hautaketa-prozesuak iraun bitartean.

3.– Hautaketa-prozesuko probak gaindituta kontrataturik gertatzen ez diren pertsonek, Euskal Finantza Erakundeak kudeatzen duen lan-poltsa bat osatuko dute, Erakundean aldi baterako zerbitzuak emateko. Osatzen den lan-poltsaren kudeaketan, 2006ko maiatzaren 30eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioko irizpideak aplikatuko dira. Akordio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa da.

HIRUGARRENA.– ESKABIDEAK.

Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin behar izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

* Gasteizen:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

* Bilbon:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

* Donostian:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; San Bartolome kalea 28; PK: 20007.

* Oñatin:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Eskabideak eta betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen egiaztagiria, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legezko 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskabidea postetxe bidez aurkeztuz gero, irekita eman behar zaio postako funtzionarioari, ziurtatu aurretik data eta zigilua jar diezaion.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan, bigarren oinarrian, 1.g) atalean ezartzen den betekizunaren egiaztagiria aurkeztu behar da. Dokumentazio hori eskaneatu eta bidaltzeko aukera dago, eskabidea Interneten bidez egiterakoan, edo, bestela IVAPeko edozein egoitzatan aurkeztu ahal izango da. Modu eta epe beretan, aurkez daitezke hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiriak, aurkeztea beharrezkoa den kasuetan.

Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea hogei egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, epaimahaiak onartuko ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartu diren eta bazter utzi diren pertsonen behin-behineko zerrendak eta zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea emango du. Egon litezkeen erreklamazioak azterturik, epaimahaiak onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendak onartuko ditu.

Tasa ordaintzea.

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

1.– OFF-LINE ordainketa: lehen aipatutako edozein banketxera joan eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.

- Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa).
- Laboral kutxa.
- La Caixa.
- Banco Santander.
- BBVA.
- Sabadell Guipuzcoano.
- Bankia.
- Bankoa.

2.– ON- LINE ordainketa banketxe horietako banka elektronikako bezeroa izanez gero, sistema hori erabil daiteke ordaintzeko. Edozein VISA edo MASTERCARD txartelen bidez ere egin daiteke ordainketa.

Tasaren zenbatekoa : **21,80** (A titulazio-taldea: Goi-mailako teknikariak).

LAUGARRENA.– KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.

Honakoak izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

– Mahaiburua: Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutako pertsona.
– Epaimahaiko kideak: bi kide, Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutakoak.
– Idazkaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa Zerbitzuko teknikari bat.

Nolanahi ere, epaimahaiak eskatu ahal izango du aholkulariak lan egiteko hautapen-prozesuaren probaren batean edo guztietan, eta horiek dagokien espezialitate teknikoa baizik ez dute egingo.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, ez baitu botorik eman ahal izango. Epaimahaiaren erabakiak daudenen botoen gehiengoak hartuko ditu. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiko kide bakoitzaren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia eta titularrekin batera izendatu beharko dira. Mahaiburuaren kasuan izan ezik, titularrek duten kalitate bera izango dute ordezkoek ere.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun Mahaiburua edo Idazkaria (edo haien ordezkoak, kasuan kasu) eta epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkoak, berdin dio) bertaratu ez badira.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu, hala jakinarazi beharko diote Euskal Finantza Erakundeko zuzendariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte.

BOSGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUA.

Izangaiek proba ezberdinetan lortutako puntuazioak eta hautaketa-prozesuari buruzko iragarkiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Oñatiko egoitzetako iragarki-oholetan jarriko dira, baita Interneten ere: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Hautapen-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, izangai hori baztertuko da, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari.

Izangaiak hautatzeko, Hautaketa-prozesuaren Diseinua izeneko atalean ezartzen den sistemari jarraituko zaio.

Sailkapen-ordena, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioen baturak baldintzatuko du. (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura gehi lehiaketarena, hala dagokionean).

SEIGARRENA.– EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa-prozesuko atal ezberdinen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari jakinaraziko dizkio hautaketa-prozesuko behin-betiko emaitzak. Zuzendariak dagokion ebazpena emango du, proposatutako pertsona kontratatzeko eta puntuazio-ordenaren arabera lan-poltsa osatutzat emateko. Lan-poltsan agertuko dira, puntuazioaren ordenaren arabera zerrendaturik, ariketa baztertzaile guztiak gainditzen dituzten izangaiak.

ZAZPIGARRENA.– GERTAKARIAK.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan ezarrita ez daudenei buruz azaltzen diren zalantzak ebatzi eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkatuak izan daitezke, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

ZORTIGARRENA.– BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATU.

Kontratatzeko proposaturik gertatzen diren pertsonek eta lan-poltsa osatzen dutenek, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko 2. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri orijinalen bidez, horretarako ezarriko den epean.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsa osatzen dutenek ez badute dokumentazioa aurkezten ezingo dira izendatuak edo kontratuak izan, eta haien jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, beren eskabideetan aizunkeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe

BEDERATZIGARRENA.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduak arautzen ditu Jaurlaritzako Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazioko eta bere Erakunde Autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak. Agindu horren arabera, hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak Hautaketa-prozesuak izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileria-eskariei erantzuteko hautaketa-prozesuak kudeatzea eta jarraipena egitea eta prozesuen berri ematea eskatzen dutenei. Fitxategiaren arduraduna IVAPeko Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkariarengana jo beharko da: Donostia-San Sebastian,1 - 01010 Vitoria-Gasteiz. Datu hauek Euskal Finantza Erakundeari jakinaraziko zaizkio, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

HAMARGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAREN DISEINUA.

Lehenengo ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Lanpostuaren eginkizunei lotutako ariketa **praktikoa** izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ezagutza maila eta honen aplikazio praktikoa balioetsiko dira, baita azalpenen argitasuna eta zuzentasuna ere.

Bigarren ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Hautagaia lanpostuari nola egokitzen zaion ebaluatzera bideraturiko probak; gaitasunari buruzkoak, nortasunari buruzkoak nahiz elkarrizketa pertsonala egitea izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko.

Euskararen ezagutzaren balioespena:
6 puntu 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik.

Berdinketak ebazteko irizpideak: honako irizpidea ezarri da berdinketak hausteko: puntuaziorik altuena ariketa praktikoan.

HAMAIKAGARRENA.– HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA

Euskararen jakite maila eskabidean alegatu behar da eta, ondoren, Epaimahaiak irekiko du ezagutza egiaztatzeko epea.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzeari dagokionean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan izena emanda dauden hizkuntza-eskakizunen titularrek **ez dute inolako alegaziorik egin behar.** Beti ere, egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada.
Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokide diren tituluak onartuko dira, **baldin eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean horrela alegatu badira**. Aipatu agiriok, beti ere, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen eskuratuak izan beharko dute.

IVAPek emandako Hizkuntza Eskakizunen baliokide diren agiriak ondoko bideak erabiliz egiaztatu ahal dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleen Hizkuntza Eskakizunak, Euskara Gaitasun Agiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako agiriak, Osakidetzaren edo Ertzaintzaren Hizkuntza Eskakizunak, eta, Kultura Sailak helduen euskararen irakaskuntzarako oinarrizko kurrikuluak ezartzen dituen ezagutza mailetako bati buruzko agiriak era hauetara egiazta daitezke.

– Berariazko baimena eman Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko eta, ondorioz, dagokion agiria hautaketa prozesuan aurkeztu beharrik ez izateko.

– Berariazko baimena ez eman eta, horretarako ezartzen den epean, alegaturiko tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

b) Alegaturiko agiriak ez badira a) atalean aipatutakoak, horretarako ezartzen den epean, tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

II. ERANSKINA

FINANTZA OPERAZIOETAKO ARLO-ARDURADUNA ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.– DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua da pertsonak hautatzea Euskal Finantza Erakundean Finantza Operazioetako Arlo-Arduraduna aldi baterako kontratatzeko, ondoren adierazten diren baldintzetan:

Kokapen geografikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan.

Euskal Finantza Erakundearekiko lotura: iraupen jakineko lan-kontratua**.**

Bete beharreko eginkizunak: hautatutako pertsonak ondoko eginkizunak beteko ditu Euskal Finantza Erakundean:

- Erakundearen jardueren finantzazioa planifikatu eta programatu.
- Diruzaintza kudeatzea.
- Erakundearen operazioak finantzatzeko beharrezkoak diren zorpetze operazioak proposatu, kudeatu eta negoziatzea.
- Informazioa aztertzea eta eskaintzea kapitalen eta finantzen merkatuen arauei, produktuei eta bilakaerari buruz.
- Gobernu organoek eskatzen dituzten azterketa eta txostenak egitea.
- Eskatutako titulazioarekin eta kategoriarekin bat etorrita, esleitu ahal zaion beste edozein eginkizun.

BIGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

1.– Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte izatea.

b) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziokotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratua gauzatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute.

c) Titulazioa: Ondokoetako titulu baten jabe izan edo berau eskuratzeko eskubideak ordaindu izana:

– Ekonomiako Lizentziatura.
– Ekonomiako Gradua.
– Ekonomia Zientzietako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizentziatura.
– Enpresen Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioko Gradua.
– Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Lizentziatura.
– Ekonomia eta Finantzetako Gradua.
– Kontabilitate eta Finantzetako Gradua.
– Finantza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantzetako Gradua.
– Finantza eta Akturariotza Ekonomiako Gradua.
– Finantza eta Aseguruetako Gradua.
– Finantza, banku eta Aseguruetako Gradua.

d) Egin beharreko zerbitzuak burutzea eragotziko duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea.

e) Diziplina-espediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auzian sartuta ez egotea.

g) Lan eskarmentua. Lau urteko eskarmentua gutxienez, ondoko eginkizunetako batean: Kapitalen merkatuaren arloa. Sektore publikoaren finantzazioa. Diruzaintzaren kudeaketa. Baldintza hau ondoko bideetako bat baliatuta egiazta daiteke:

- Zerbitzuak eman diren enpresak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak burutu diren eginkizunak zehaztu behar ditu.

- Lan-kontratua, burutu diren eginkizunak ezagutzeko bidea ematen badu, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.

- Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun-sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituena. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu; eskatzailea egile duten txostenak, e.a.

h) Ingeleseko B2 maila. (First Certificate edo baliokidea).

2.– Aurreko baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira eta bere horretan mantendu hautaketa-prozesuak iraun bitartean.

3.– Hautaketa-prozesuko probak gaindituta kontrataturik gertatzen ez diren pertsonek, Euskal Finantza Erakundeak kudeatzen duen lan-poltsa bat osatuko dute, Erakundean aldi baterako zerbitzuak emateko. Osatzen den lan-poltsaren kudeaketan, 2006ko maiatzaren 30eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioko irizpideak aplikatuko dira. Akordio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa da.

HIRUGARRENA.– ESKABIDEAK.

Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin behar izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa. Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

* Gasteizen:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

* Bilbon:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

* Donostian:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; San Bartolome kalea 28; PK: 20007.

* Oñatin:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Eskabideak eta betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen egiaztagiria, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legezko 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskabidea postetxe bidez aurkeztuz gero, irekita eman behar zaio postako funtzionarioari, ziurtatu aurretik data eta zigilua jar diezaion.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan, bigarren oinarrian, 1 zenbakiko g) eta h) ataletan ezartzen diren betekizunen egiaztagiriak aurkeztu behar dira. Dokumentazio hori eskaneatu eta bidaltzeko aukera dago, eskabidea Interneten bidez egiterakoan, edo, bestela IVAPeko edozein

egoitzatan aurkeztu ahal izango da. Modu eta epe beretan, aurkez daitezke hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiriak, aurkeztea beharrezkoa den kasuetan.
Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea hogei egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, epaimahaiak onartuko ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartu diren eta bazter utzi diren pertsonen behin-behineko zerrendak eta zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea emango du. Egon litezkeen erreklamazioak azterturik, epaimahaiak onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendak onartuko ditu.

Tasa ordaintzea.

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

1.– OFF-LINE ordainketa: lehen aipatutako edozein banketxera joan eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.

– Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa).
– Laboral kutxa.
– La Caixa.
– Banco Santander.
– BBVA.
– Sabadell Guipuzcoano.
– Bankia.
– Bankoa.

2.– ON- LINE ordainketa banketxe horietako banka elektronikako bezeroa izanez gero, sistema hori erabil daiteke ordaintzeko. Edozein VISA edo MASTERCARD txartelen bidez ere egin daiteke ordainketa.

Tasaren zenbatekoa : **21,80** (A titulazio-taldea: Goi-mailako teknikariak).

LAUGARRENA.– KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.

Honakoak izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

– Mahaiburua: Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutako pertsona.
– Epaimahaiko kideak: bi kide, Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutakoak.
– Idazkaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa Zerbitzuko teknikari bat.

Nolanahi ere, epaimahaiak eskatu ahal izango du aholkulariak lan egiteko hautapen-prozesuaren probaren batean edo guztietan, eta horiek dagokien espezialitate teknikoa baizik ez dute egingo.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, ez baitu botorik eman ahal izango. Epaimahaiaren erabakiak daudenen botoen gehiengoak hartuko ditu. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiko kide bakoitzaren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia eta titularrekin batera izendatu beharko dira. Mahaiburuaren kasuan izan ezik, titularrek duten kalitate bera izango dute ordezkoek ere.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun Mahaiburua edo Idazkaria (edo haien ordezkoak, kasuan kasu) eta epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkoak, berdin dio) bertaratu ez badira.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu, hala jakinarazi beharko diote Euskal Finantza Erakundeko zuzendariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte.

BOSGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUA.

Izangaiek proba ezberdinetan lortutako puntuazioak eta hautaketa-prozesuari buruzko iragarkiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Oñatiko egoitzetako iragarki-oholetan jarriko dira, baita Interneten ere **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa. Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Hautapen-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, izangai hori baztertuko da, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari..

Izangaiak hautatzeko, Hautaketa-prozesuaren Diseinua izeneko atalean ezartzen den sistemari jarraituko zaio.

Sailkapen-ordena, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioen baturak baldintzatuko du. (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura gehi lehiaketarena, hala dagokionean).

SEIGARRENA.– EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa-prozesuko atal ezberdinen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari jakinaraziko dizkio hautaketa-prozesuko behin-betiko emaitzak. Zuzendariak dagokion ebazpena emango du, proposatutako pertsona kontratatzeko eta puntuazio-ordenaren arabera lan-poltsa osatutzat emateko. Lan-poltsan agertuko dira, puntuazioaren ordenaren arabera zerrendaturik, ariketa baztertzaile guztiak gainditzen dituzten izangaiak.

ZAZPIGARRENA.– GERTAKARIAK.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan ezarrita ez daudenei buruz azaltzen diren zalantzak ebatzi eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkatuak izan daitezke, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

ZORTIGARRENA.– BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATU.

Kontratatzeko proposaturik gertatzen diren pertsonek eta lan-poltsa osatzen dutenek, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko 2. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri orijinalen bidez, horretarako ezarriko den epean.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsa osatzen dutenek ez badute dokumentazioa aurkezten ezingo dira izendatuak edo kontratuak izan, eta haien jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, beren eskabideetan aizunkeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

BEDERATZIGARRENA.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduak arautzen ditu Jaurlaritzako Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazioko eta bere Erakunde Autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak. Agindu horren arabera, hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak Hautaketa-prozesuak izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileria-eskariei erantzuteko hautaketa-prozesuak kudeatzea eta jarraipena egitea eta prozesuen berri ematea eskatzen dutenei. Fitxategiaren arduraduna IVAPeko Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkariarengana jo beharko da: Donostia-San Sebastian,1; 01010 Vitoria-Gasteiz. Datu hauek Euskal Finantza Erakundeari jakinaraziko zaizkio, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

HAMARGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAREN DISEINUA.

Lehenengo ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Lanpostuaren eginkizunei lotutako ariketa **praktikoa** izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ezagutza maila eta honen aplikazio praktikoa balioetsiko dira, baita azalpenen argitasuna eta zuzentasuna ere.

Bigarren ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Hautagaia lanpostuari nola egokitzen zaion ebaluatzera bideraturiko probak; gaitasunari buruzkoak, nortasunari buruzkoak nahiz elkarrizketa pertsonala egitea izango da.. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ondokoak dira bete beharreko eginkizunak:

Euskararen ezagutzaren balioespena:
6 puntu 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik.

Berdinketak ebazteko irizpideak: honako irizpidea ezarri da berdinketak hausteko: puntuaziorik altuena ariketa praktikoan.

HAMAIKAGARRENA.– HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA.

Euskararen jakite maila eskabidean alegatu behar da eta, ondoren, Epaimahaiak irekiko du ezagutza egiaztatzeko epea.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzeari dagokionean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan izena emanda dauden hizkuntza-eskakizunen titularrek **ez dute inolako alegaziorik egin behar.** Beti ere, egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada.

Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokide diren tituluak onartuko dira, **baldin eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean horrela alegatu badira**. Aipatu agiriok, beti ere, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen eskuratuak izan beharko dute.

IVAPek emandako Hizkuntza Eskakizunen baliokide diren agiriak ondoko bideak erabiliz egiaztatu ahal dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleen Hizkuntza Eskakizunak, Euskara Gaitasun Agiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako agiriak, Osakidetzaren edo Ertzaintzaren Hizkuntza Eskakizunak, eta, Kultura Sailak helduen euskararen irakaskuntzarako oinarrizko kurrikuluak ezartzen dituen ezagutza mailetako bati buruzko agiriak era hauetara egiazta daitezke.

– Berariazko baimena eman Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko eta, ondorioz, dagokion agiria hautaketa prozesuan aurkeztu beharrik ez izateko.

– Berariazko baimena ez eman eta, horretarako ezartzen den epean, alegaturiko tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

b) Alegaturiko agiriak ez badira a) atalean aipatutakoak, horretarako ezartzen den epean, tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

III. ERANSKINA

INBERTSIOETAKO TEKNIKARI ANALISTA ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.– DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua da pertsonak hautatzea Euskal Finantza Erakundean Inbertsioetako teknikari analista aldi baterako kontratatzeko, ondoren adierazten diren baldintzetan:

Kokapen geografikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan.

Euskal Finantza Erakundearekiko lotura: Iraupen jakineko lan-kontratua**.**

Bete beharreko eginkizunak: Hautatutako pertsonak ondoko eginkizunak beteko ditu Euskal Finantza Erakundean:

- Erakundeari eskatutako kreditu, mailegu eta abal operazioetako arriskuen analisiei buruzko txostenak taxutzea.
- Enpresa ez-finantziarioetako kapitalean parte hartzeari buruzko erabakiak hartzeko behar diren enpresen balorazio-txostenak taxutzea.
- Beharrezkoa den informazioa ematea Erakundeak duen arriskuak kontrolatzeko sistemari.
- Egoera ekonomikoari buruzko azterketak egitea, merkatuen etorkizuneko bilakaera aurreikusteko.
- Sortzen diren produktu zein inbertsio aukera berriak aztertzea.
- Eskatutako titulazioarekin eta kategoriarekin bat etorrita, esleitu ahal zaion beste edozein eginkizun.

BIGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

1.– Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte izatea.

b) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziokotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratua gauzatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute.

c) Titulazioa: Ondokoetako titulu baten jabe izan edo berau eskuratzeko eskubideak ordaindu izana:

– Ekonomiako Lizentziatura.
– Ekonomiako Gradua.
– Ekonomia Zientzietako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizentziatura.
– Enpresen Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioko Gradua.
– Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Lizentziatura.
– Ekonomia eta Finantzetako Gradua.
– Kontabilitate eta Finantzetako Gradua.
– Finantza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantzetako Gradua.
– Finantza- eta Akturariotza-ekonomiako Gradua.
– Finantza eta Aseguruetako Gradua.
– Finantza, banku eta Aseguruetako Gradua.

d) Egin beharreko zerbitzuak burutzea eragotziko duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea.

e) Diziplina-espediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auzian sartuta ez egotea.

g) Lan eskarmentua: bi urteko eskarmentua gutxienez, ondoko eginkizunetako batean:

– Arriskuen analisia, arrisku-kapitaleko edo inbertsioko bankuetan.
– Enpresen balorazioa.

Baldintza hau ondoko bideetako bat baliatuta egiazta daiteke:

- Zerbitzuak eman diren enpresak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak burutu diren eginkizunak zehaztu behar ditu.
- Lan-kontratua, burutu diren eginkizunak ezagutzeko bidea ematen badu, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.
- Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun-sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituena. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu; eskatzailea egile duten txostenak, e.a.

2.– Aurreko baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira eta bere horretan mantendu hautaketa-prozesuak iraun bitartean.

3.– Hautaketa-prozesuko probak gainditua kontrataturik gertatzen ez diren pertsonek, Euskal Finantza Erakundeak kudeatzen duen lan-poltsa bat osatuko dute, Erakundean aldi baterako zerbitzuak emateko. Osatzen den lan-poltsaren kudeaketan, 2006ko maiatzaren 30eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioko irizpideak aplikatuko dira. Akordio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa da.

HIRUGARRENA.– ESKABIDEAK.

Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin behar izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net.

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

* Gasteizen:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

* Bilbon:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

* Donostian:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; San Bartolome kalea 28; PK: 20007.

* Oñatin:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Eskabideak eta betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen egiaztagiria, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legezko 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskabidea postetxe bidez aurkeztuz gero, irekita eman behar zaio postako funtzionarioari, ziurtatu aurretik data eta zigilua jar diezaion.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan, bigarren oinarrian, 1.g) atalean ezartzen den betekizunaren egiaztagiria aurkeztu behar da. Dokumentazio hori eskaneatu eta bidaltzeko aukera dago, eskabidea Interneten bidez egiterakoan, edo, bestela IVAPeko edozein egoitzatan aurkeztu

ahal izango da. Modu eta epe beretan, aurkez daitezke hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiriak, aurkeztea beharrezkoa den kasuetan.

Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea hogei egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, epaimahaiak onartuko ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartu diren eta bazter utzi diren pertsonen behin-behineko zerrendak eta zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea emango du. Egon litezkeen erreklamazioak azterturik, epaimahaiak onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendak onartuko ditu.

Tasa ordaintzea.

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

1.– OFF-LINE ordainketa: lehen aipatutako edozein banketxera joan eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.

– Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa).
– Laboral kutxa.
– La Caixa.
– Banco Santander.
– BBVA.
– Sabadell Guipuzcoano.
– Bankia.
– Bankoa.

2.– ON- LINE ordainketa banketxe horietako banka elektronikako bezeroa izanez gero, sistema hori erabil daiteke ordaintzeko. Edozein VISA edo MASTERCARD txartelen bidez ere egin daiteke ordainketa.

Tasaren zenbatekoa : **21,80** (A titulazio-taldea: Goi-mailako teknikariak).

LAUGARRENA.– KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.

Honakoak izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

–Mahaiburua: Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutako pertsona.
–Epaimahaiko kideak: bi kide, Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutakoak.
–Idazkaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa Zerbitzuko teknikari bat.

Nolanahi ere, epaimahaiak eskatu ahal izango du aholkulariak lan egiteko hautapen-prozesuaren probaren batean edo guztietan, eta horiek dagokien espezialitate teknikoa baizik ez dute egingo.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, ez baitu botorik eman ahal izango. Epaimahaiaren erabakiak daudenen botoen gehiengoak hartuko ditu. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiko kide bakoitzaren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia eta titularrekin batera izendatu beharko dira. Mahaiburuaren kasuan izan ezik, titularrek duten kalitate bera izango dute ordezkoek ere.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun Mahaiburua edo Idazkaria (edo haien ordezkoak, kasuan kasu) eta epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkoak, berdin dio) bertaratu ez badira.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu, hala jakinarazi beharko diote Euskal Finantza Erakundeko zuzendariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte.

BOSGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUA.

Izangaiek proba ezberdinetan lortutako puntuazioak eta hautaketa-prozesuari buruzko iragarkiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Oñatiko egoitzetako iragarki-oholetan jarriko dira, baita Interneten ere **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Hautapen-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, izangai hori baztertuko da, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari..

Izangaiak hautatzeko, Hautaketa-prozesuaren Diseinua izeneko atalean ezartzen den sistemari jarraituko zaio.

Sailkapen-ordena, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioen baturak baldintzatuko du. (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura gehi lehiaketarena, hala dagokionean).

SEIGARRENA.– EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa-prozesuko atal ezberdinen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari jakinaraziko dizkio hautaketa-prozesuko behin-betiko emaitzak. Zuzendariak dagokion ebazpena emango du, proposatutako pertsona kontratatzeko eta puntuazio-ordenaren arabera lan-poltsa osatutzat emateko. Lan-poltsan agertuko dira, puntuazioaren ordenaren arabera zerrendaturik, ariketa baztertzaile guztiak gainditzen dituzten izangaiak.

ZAZPIGARRENA.– GERTAKARIAK.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan ezarrita ez daudenei buruz azaltzen diren zalantzak ebatzi eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkatuak izan daitezke, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

ZORTIGARRENA.– BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATU.

Kontratatzeko proposaturik gertatzen diren pertsonek eta lan-poltsa osatzen dutenek, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko 2. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri orijinalen bidez, horretarako ezarriko den epean.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsa osatzen dutenek ez badute dokumentazioa aurkezten ezingo dira izendatuak edo kontratuak izan, eta haien jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, beren eskabideetan aizunkeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

BEDERATZIGARRENA.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduak arautzen ditu Jaurlaritzako Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazioko eta bere Erakunde Autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak. Agindu horren arabera, hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak Hautaketa-prozesuak izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileria-eskariei erantzuteko hautaketa-prozesuak kudeatzea eta jarraipena egitea eta prozesuen berri ematea eskatzen dutenei. Fitxategiaren arduraduna IVAPeko Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkariarengana jo beharko da: Donostia-San Sebastian,1; 01010 Vitoria-Gasteiz. Datu hauek Euskal Finantza Erakundeari jakinaraziko zaizkio, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

HAMARGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAREN DISEINUA.

Lehenengo ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Lanpostuaren eginkizunei lotutako ariketa **praktikoa** izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ezagutza maila eta honen aplikazio praktikoa balioetsiko dira, baita azalpenen argitasuna eta zuzentasuna ere.

Bigarren ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Hautagaia lanpostuari nola egokitzen zaion ebalua¬tzera bideraturiko probak; gaitasunari buruzkoak, nortasunari buruzkoak nahiz elkarrizketa pertsonala egitea izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ondokoak dira bete beharreko eginkizunak:

Euskararen ezagutzaren balioespena:
6 puntu 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik.

Berdinketak ebazteko irizpideak: honako irizpidea ezarri da berdinketak hausteko: puntuaziorik altuena ariketa praktikoan.

HAMAIKAGARRENA.– HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA.

Euskararen jakite maila eskabidean alegatu behar da eta, ondoren, Epaimahaiak irekiko du ezagutza egiaztatzeko epea.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzeari dagokionean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan izena emanda dauden hizkuntza-eskakizunen titularrek **ez dute inolako alegaziorik egin behar.** Beti ere, egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada.

Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokide diren tituluak onartuko dira, **baldin eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean horrela alegatu**

badira. Aipatu agiriok, beti ere, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen eskuratuak izan beharko dute.
IVAPek emandako Hizkuntza Eskakizunen baliokide diren agiriak ondoko bideak erabiliz egiaztatu ahal dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleen Hizkuntza Eskakizunak, Euskara Gaitasun Agiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako agiriak, Osakidetzaren edo Ertzaintzaren Hizkuntza Eskakizunak, eta , Kultura Sailak helduen euskararen irakaskuntzarako oinarrizko kurrikuluak ezartzen dituen ezagutza mailetako bati buruzko agiriak era hauetara egiazta daitezke.

– Berariazko baimena eman Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko eta, ondorioz, dagokion agiria hautaketa prozesuan aurkeztu beharrik ez izateko.

– Berariazko baimena ez eman eta, horretarako ezartzen den epean, alegaturiko tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

b) Alegaturiko agiriak ez badira a) atalean aipatutakoak, horretarako ezartzen den epean, tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

IV. ERANSKINA

KONTABILITATE- ETA FINANTZA-TEKNIKARIA ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.– DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua da pertsonak hautatzea Euskal Finantza Erakundean Kontabilitate- eta Finantza-teknikaria aldi baterako kontratatzeko, ondoren adierazten diren baldintzetan:

Kokapen geografikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen edozein egoitzatan Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan.

Euskal Finantza Erakundearekiko lotura: iraupen jakineko lan-kontratua**.**

Bete beharreko eginkizunak: Hautatutako pertsonak ondoko eginkizunak beteko ditu Euskal Finantza Erakundean:

– Kontabilitateari eta kudeaketari buruzko informazioa prestatzea.
– Ustiapen- eta kapital-aurrekontuak taxutzea, eta dagokien organoei jakinaraztea.
– Zuzendaritzak eskatutako kudeaketa-txostenak egitea.
– Urteko memoria egitea.
– Kanpoko auditoreei laguntza ematea.
– Aurrekontuen eta urteko helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea.
– Eskatutako titulazioarekin eta kategoriarekin bat etorrita, esleitu ahal zaion beste edozein eginkizun.

BIGARRENA: HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

1.– Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte izatea.

b) Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziokotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Gainera, aurreko paragrafoetan aipatu gabeko atzerritarrek ere har dezakete parte, Espainiako estatuan bizi badira. Hautatuak izanez gero, kontratua gauzatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena dutela egiaztatu beharko dute.

c) Titulazioa: Ondokoetako titulu baten jabe izan edo berau eskuratzeko eskubideak ordaindu izana:

– Ekonomiako Lizentziatura.
– Ekonomiako Gradua.
– Ekonomia Zientzietako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Lizentziatura.
– Enpresen Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradua.
– Enpresen Zuzendaritza eta Administrazioko Gradua.
– Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Lizentziatura.
– Ekonomia eta Finantzetako Gradua.
– Kontabilitate eta Finantzetako Gradua.
– Finantza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua.
– Finantzetako Gradua.
– Finantza- eta Akturariotza -ekonomiako Gradua.
– Finantza eta Aseguruetako Gradua.
– Finantza, banku eta Aseguruetako Gradua.

d) Egin beharreko zerbitzuak burutzea eragotziko duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez izatea.

e) Diziplina-espediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auzian sartuta ez egotea.

g) Lan eskarmentua: bi urteko eskarmentua gutxienez, ondoko eginkizunetako batean:

– Finantza erakundeen kontabilitatea eta kudeaketaren kontrola.
– Herri Administrazioen kontabilitatea eta aurrekontuen taxutzea.
– Auditoretza sektore publikoan edo pribatuan.

Baldintza hau ondoko bideetako bat baliatuta egiazta daiteke:

- Zerbitzuak eman diren enpresak egindako ziurtagiria. Ziurtagiriak burutu diren eginkizunak zehaztu behar ditu.
- Lan-kontratua, burutu diren eginkizunak ezagutzeko bidea ematen badu, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.
- Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun-sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituena. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu; eskatzailea egile duten txostenak, e.a.

2.– Aurreko baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira eta bere horretan mantendu hautaketa-prozesuak iraun bitartean.

3.– Hautaketa-prozesuko probak gaindituta kontrataturik gertatzen ez diren pertsonek, Euskal Finantza Erakundeak kudeatzen duen lan-poltsa bat osatuko dute, Erakundean aldi baterako zerbitzuak emateko. Osatzen den lan-poltsaren kudeaketan, 2006ko maiatzaren 30eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioko irizpideak aplikatuko dira. Akordio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzkoa da.

HIRUGARRENA: ESKABIDEAK.

Eskabideak aurkeztea.

Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonek Internet bidez egin behar izango dute eskaera eta honako helbide elektronikoan eskuragarri duten eredua bete beharko dute: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak).**

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzako KZGunea zentro publikoen bidez egin ahal izango da. KZGuneen zerrenda eta kokagunea eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: www.kzgunea.net.

Eskaerak ondoren adierazitako bulegoetan ere egin ahal izango dira:

* Gasteizen:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Donostia kalea 1 (Lakua); PK: 01010.

* Bilbon:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Errekalde zumarkalea 18; PK: 48009.

* Donostian:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; San Bartolome kalea 28; PK: 20007.

* Oñatin:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean; Unibertsitate Zaharra; PK: 20560.

Eskabideak eta betekizuna betetzen dela egiaztatzen duen egiaztagiria, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legezko 38.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkez daitezke.

Eskabidea postetxe bidez aurkeztuz gero, irekita eman behar zaio postako funtzionarioari, ziurtatu aurretik data eta zigilua jar diezaion.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan, bigarren oinarrian, 1g) atalean ezartzen den betekizunaren egiaztagiria aurkeztu behar da. Dokumentazio hori eskaneatu eta bidaltzeko aukera dago, eskabidea Interneten bidez egiterakoan, edo, bestela IVAPeko edozein egoitzatan aurkeztu ahal izango da. Modu eta epe beretan, aurkez daitezke hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiriak, aurkeztea beharrezkoa den kasuetan.

Eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea hogei egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, epaimahaiak onartuko ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartu diren eta bazter utzi diren pertsonen behin-behineko zerrendak eta zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea emango du. Egon litezkeen erreklamazioak azterturik, epaimahaiak onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrendak onartuko ditu.

Tasa ordaintzea.

Tasak ordaintzeko bi modu daude:

1.– OFF-LINE ordainketa: lehen aipatutako edozein banketxera joan eta sistemak emandako inprimakia aurkeztu.

– Kutxabank (BBK, Vital, Kutxa).
– Laboral kutxa.
– La Caixa.
– Banco Santander.
– BBVA.
– Sabadell Guipuzcoano.
– Bankia.
– Bankoa.

2.– ON- LINE ordainketa banketxe horietako banka elektronikako bezeroa izanez gero, sistema hori erabil daiteke ordaintzeko. Edozein VISA edo MASTERCARD txartelen bidez ere egin daiteke ordainketa.

Tasaren zenbatekoa: **21,80** (A titulazio-taldea: Goi-mailako teknikariak).

LAUGARRENA.– KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA.

Honakoak izango dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

–Mahaiburua: Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutako pertsona.
–Epaimahaiko kideak: bi kide, Euskal Finantza Erakundeko zuzendariak izendatutakoak.
–Idazkaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Hautaketa Zerbitzuko teknikari bat.

Nolanahi ere, epaimahaiak eskatu ahal izango du aholkulariak lan egiteko hautapen-prozesuaren probaren batean edo guztietan, eta horiek dagokien espezialitate teknikoa baizik ez dute egingo.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, Idazkariak izan ezik, ez baitu botorik eman ahal izango. Epaimahaiaren erabakiak daudenen botoen gehiengoak hartuko ditu. Berdinketa egongo balitz, mahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Epaimahaiko kide bakoitzaren ordezkoek ere osatuko dute epaimahaia eta titularrekin batera izendatu beharko dira. Mahaiburuaren kasuan izan ezik, titularrek duten kalitate bera izango dute ordezkoek ere.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun Mahaiburua edo Idazkaria (edo haien ordezkoak, kasuan kasu) eta epaimahaikideen erdiak (titularrak edo ordezkoak, berdin dio) bertaratu ez badira.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 28. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute esku hartu, hala jakinarazi beharko diote Euskal Finantza Erakundeko zuzendariari, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte.

BOSGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUA.

Izangaiek proba ezberdinetan lortutako puntuazioak eta hautaketa-prozesuari buruzko iragarkiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Oñatiko egoitzetako iragarki-oholetan jarriko dira, baita Interneten ere: **www.euskadi.net (Atala: Enplegu Publikoa, Herritarrentzako Zerbitzuak)**

Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie.

Hautapen-prozesuaren edozein unetan epaimahaiak jakingo balu izangairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, izangai hori baztertuko da, entzunaldia egin ondoren, eta egun berean horren berri emango zaio Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari.

Izangaiak hautatzeko, Hautaketa-prozesuaren Diseinua izeneko atalean ezartzen den sistemari jarraituko zaio.

Sailkapen-ordena, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioen baturak baldintzatuko du. (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura gehi lehiaketarena, hala dagokionean).

SEIGARRENA.– EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa-prozesuko atal ezberdinen kalifikazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak Euskal Finantza Erakundeko Zuzendariari jakinaraziko dizkio hautaketa-prozesuko behin-betiko emaitzak. Zuzendariak dagokion ebazpena emango du, proposatutako pertsona kontratatzeko eta puntuazio-ordenaren arabera lan-poltsa osatutzat emateko. Lan-poltsan agertuko dira, puntuazioaren ordenaren arabera zerrendaturik, ariketa baztertzaile guztiak gainditzen dituzten izangaiak.

ZAZPIGARRENA.– GERTAKARIAK.

Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan ezarrita ez daudenei buruz azaltzen diren zalantzak ebatzi eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Epaimahaiaren jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurkatuak izan daitezke, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak jasotako kasu eta moduetan.

ZORTIGARRENA.– BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATU.

Kontratatzeko proposaturik gertatzen diren pertsonek eta lan-poltsa osatzen dutenek, hautaketa-prozesuan parte-hartzeko 2. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute agiri orijinalen bidez, horretarako ezarriko den epean.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsa osatzen dutenek ez badute dokumentazioa aurkezten ezingo dira izendatuak edo kontratuak izan, eta haien jardun guztiak

baliogabetuta geratuko dira, beren eskabideetan aizunkeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

BEDERATZIGARRENA.– DATU PERTSONALEN BABESA.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko martxoaren 2ko Aginduak arautzen ditu Jaurlaritzako Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazioko eta bere Erakunde Autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak. Agindu horren arabera, hautaketa-prozesuan bildutako datu pertsonalak Hautaketa-prozesuak izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuan sartuko dira. Fitxategi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko langileria-eskariei erantzuteko hautaketa-prozesuak kudeatzea eta jarraipena egitea eta prozesuen berri ematea eskatzen dutenei. Fitxategiaren arduraduna IVAPeko Zuzendaritza da eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Idazkariarengana jo beharko da: Donostia-San Sebastian,1; 01010 Vitoria-Gasteiz. Datu hauek Euskal Finantza Erakundeari jakinaraziko zaizkio, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 21.2 artikuluan ezarritakoaren babesean.

HAMARGARRENA.– HAUTAKETA-PROZESUAREN DISEINUA.

Lehenengo ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Lanpostuaren eginkizunei lotutako ariketa **praktikoa** izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ezagutza maila eta honen aplikazio praktikoa balioetsiko dira, baita azalpenen argitasuna eta zuzentasuna ere.

Bigarren ariketa.– **Nahitaezkoa eta bazter-izaerakoa** izangai guztientzat. Hautagaia lanpostuari nola egokitzen zaion ebaluatzera bideraturiko probak; gaitasunari buruzkoak, nortasunari buruzkoak nahiz elkarrizketa pertsonala egitea izango da. Gehienez 20 puntuz balioetsiko da eta gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira ariketa gainditzeko. Ondokoak dira bete beharreko eginkizunak:

Euskararen ezagutzaren balioespena:
6 puntu 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeagatik.

Berdinketak ebazteko irizpideak: honako irizpidea ezarri da berdinketak hausteko: Puntuaziorik altuena ariketa praktikoan.

HAMAIKAGARRENA.– HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEA.

Euskararen jakite maila eskabidean alegatu behar da eta, ondoren, Epaimahaiak irekiko du ezagutza egiaztatzeko epea.

Deialdiaren oinarrietan ezarritako hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzeari dagokionean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko hizkuntza-eskakizunen erregistroan izena emanda dauden hizkuntza-eskakizunen titularrek **ez dute inolako alegaziorik egin behar.** Beti ere, egiaztatzea eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada.

Era berean, indarrean dagoen araudiaren arabera IVAPen 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokide diren tituluak onartuko dira, **baldin eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean horrela alegatu badira**. Aipatu agiriok, beti ere, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna baino lehen eskuratuak izan beharko dute.
IVAPek emandako Hizkuntza Eskakizunen baliokiden diren agiriak ondoko bideak erabiliz egiaztatu ahal dira:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleen Hizkuntza Eskakizunak, Euskara Gaitasun Agiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako agiriak, Osakidetzaren edo Ertzaintzaren Hizkuntza Eskakizunak, eta, Kultura Sailak helduen euskararen irakaskuntzarako oinarrizko kurrikuluak ezartzen dituen ezagutza mailetako bati buruzko agiriak era hauetara egiazta daitezke.

– Berariazko baimena eman Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagozkion erregistroetan sartzeko, egindako alegazioaren zehaztasuna egiaztatu ahal izateko eta, ondorioz, dagokion agiria hautaketa prozesuan aurkeztu beharrik ez izateko.

– Berariazko baimena ez eman eta, horretarako ezartzen den epean, alegaturiko tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.

b) Alegaturiko agiriak ez badira a) atalean aipatutakoak, horretarako ezartzen den epean, tituluaren edo egiaztagiriaren jabe dela kreditatzea.